

Profila Imanol Rego, Berrikuntzaren Euskal Agentziako, Innobasqueko presidentea

Imanol Rego (Donostia, 1972) Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako Zuzendaritza Batzordeko kidea da 2022ko irailetik, orduan izendatu baitzuten Irizar Taldeko zuzendari nagusi. Industria-ingeniaria da eta MBA bat du Lovainan. Halaber, Harvard eta Singapurreko CCL negozio-eskoletan trebatu da, eta ibilbide profesional zabala du industriari, teknologiari eta kanpo-merkatuari lotuta. Irizar Taldeko zuzendari nagusia izan aurretik, Irizar e-mobility filialaren buru izan zen, eta erantzukizun-karguak izan zituen negozio eta merkatuko hainbat arlotan Schneider Electric multinazionalean. Hara Corporación Patricio Echevarría enpresatik iritsi zen. Gaur egun, gainera, Tecnaliako Patronatuko eta Batzorde Betearazleko kide da, baita CIDETECen Patronatukoa (Centro de investigación y desarrollo tecnológico) eta Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolako (Tecnun) Enpresa Aholkularitza Kontseilukoa ere, eta horrek Euskal Herriko enpresa, ikerketa eta hezkuntzari buruz duen ikuspegia osatzen du.

Izendapen horrekin, Imanol Rego Innobasqueko bosgarren presidentea izango da elkarteak 2007an sortu zenetik, eta datozen urteetan beteko du kargu hori.